



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2015eko EBALUAZIO TXOSTENA
Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia

Donostian, 2015eko abenduaren 22an

Edorta Bergua
(Bizikleta Bideen Plangintza eta Sustapeneko teknikaria)



AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	3
2.	2015eko Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzen ebaluazioa	4
3.	Bizikletaren Estrategia ebaluatzeko adierazle sistema	17
4.	Balantze orokorra	34



1. AURKEZPENA

Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia 2014-2022, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren batzarrak onartua, Foru Aldundi honek datozen urteetara begira bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan garatuko dituen politika eta jarduera-ildoak orientatzeko tresna da.

Estrategia horrek, gauzatzera begira, urteko kudeaketa plana prestatzea aurreikusten du, horretan jasotzearren epe horretan zehar zabaldu beharreko jarduera-programen multzoa.

Era berean, emaitzak ebaluatzeko mekanismotzat ezartzen du txosten bat erredaktatzea, Estrategian ezarritako helburuetatik ondorioztatutako emaitzetatik -adierazle sistema batean jasoko baitira- eta urteko kudeaketa planean aurreikusitako ekintzen gauzatze mailatik abiatuta.

Konpromiso horri erantzutearren erredaktatzen da txosten hau, eta ondoren Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluari igorri beharko zaio, hark analizatu eta bere irizpena eman dezan¹.

¹ Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren erregelamenduak, bere 4. artikuluan, ezartzen du Bizikletaren Kontseiluaren jarduera esparrua Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia prestatzera, garatzera eta ebaluatzera mugatzen dela.



2. 2015eko KUDEAKETA PLANEAN AURREIKUSITAKO EKINTZEN EBALUAZIOA

Ondoren, Bizikletaren Estrategiaren 2015eko Kudeaketa Planak aurreikusitako ekintzak aurkezten dira, horietako bakoitzari buruz, eta kasuan kasuko gauzatze mailaren arabera, egiten den balorazioa barne.

2.1. Azpiegiturak eta zerbitzuak

1. Udal azpiegitura eta zerbitzu sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
1.1. Udal azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko programa	Dirulaguntza deialdia, hiri esparruan bizikletarekin lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak sortzera, eraberritzera eta hobetzera zuzendua	250.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 223.415 € Dirulaguntza jaso duten 13 udal.
1.2. Udal azpiegitura eta zerbitzuen arloko prestakuntza programa	Bizikletaren politiken udal gida	1.500 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 8.470 € Cristina Enea Fundazioarekiko elkarlanean landua. Gidaren aurkezpen eta zabalkundea 2016ko urtarrilerako aurreikusia.
	Bizikleta bidezko mugikortasunaren arloko prestakuntzarako eta esperientziak trukatzeko mintegia	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Gauzatu gabe.



2. Foru azpiegitura eta zerbitzu sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
2.1. Foru azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko programa	Foru bizikleta bideen oinarrizko sareko tarte berrietan inbertitzea	4.600.083 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 2.978.050 € Desbideratzea: - % 35,3
2.2. Foru sarearen artapen programa	Foru sarea mantentzeko inbertsioa (artapen eta seinaleztapen beharrei buruzko aurreiazko txostena prestatzea)	1.141.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 236.000 € Desbideratzea: - % 79,32 Era berean, bizikleta bideen foru sare osoko ikuskatze eta ebaluazio lanak egin dira, besteak beste horren mantentze egoera, seinaleztapen eta argiztapena, bidegurutzeen segurtasuna, irisgarritasuna eta tarteen konektagarritasuna baloratzeko, eta antzemandako gabeziei erantzuteko irtenbideak proposatzeko. Konklusioei buruzko txostena 2016ko lehen hiruhilekoan zehar aurkeztuko da.
2.3. Foru azpiegiturak eraberritzeko eta hobetzeko programa	Hobetzeko moduan dauden foru sareko tarteak eraberritzeko inbertsioa. (Eraberritu beharreko lehentasunezko elementuei buruzko aurreiazko txostena, kontagailu sistemako datuetatik eta Bizikletaren Behatokiak bere urteko memoriarako egiten duen diagnostikotik abiatuta)	Berriazko partidarik gabe	Gauzatu gabe.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	Foru sarearen jarraipena: duela hainbat urte ezarritako kontaketa sistemari jarraipena ematea (kontagailuak mantentzea, SMS, pilak) eta kontagailu sarea handitzea.	16.300 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 17.732,8 €
--	---	----------	--

3. Bizikletak galtzadetan sartzeari: trafikoa moteltzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
3.1. Hiri esparruan trafikoa moteltzeko programa	Trafikoa moteltzeko ekintzak hiri eremuetan, eta txirrindulariak galtzadan sartzeari	500.000 €	Ekintza gauzatua. Trafikoa moteltzeko 7 ekintza gauzatu dira. Aurrekontu gauzatua: 625.814,66 euros

4. Bizikletaren eta ibilgailu kolektibo motordunen intermodalitatea hobetzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
4.1. Bizikleta-trena intermodalitatea bultzatzeko programa	Operadoreekiko elkarlana, trenetan bizikletak eramateko espazioa prestatzeko eta horren erabilera arautzeko (material mugikor berria lizitzatzeko eta material hori eraberritzeko irizpideak prestatzea)	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Gauzatu gabe. Asmoa da ekintza hau Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren batzorde baten barnean garatzea.
	Operadoreekiko elkarlana, geltokietan bizikletetarako aparkalekuak sortzeko	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Gauzatu gabe.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	(lehenbiziko pausoak egitea, 2016an geltokietako aparkaleku plan bat presatzeko eta urte horretatik aurrera plana garatzeko)		Asmoa da ekintza hau Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren batzorde baten barnean garatzea.
4.2. Bizikleta-autobus intermodalitatea bultzatzeko programa	Autobusen sotoetan bizikletak eramateko aukera tekniko eta operatiboen analisia (autobus-konfigurazioei buruzko lehen analisi teknikoak egitea, bizikletak eramateko aukerari dagokionez)	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Ekintza gauzatua. Ekintza honi erantzuna ematearren, 2015eko irailaren 10ean bilera bat egin zen Mugikortasuneko eta Garraioko Zerbitzuaren ordezkarien eta Irizar enpresaren ordezkarien artean. Horretan bizikletak garraiatzeko hainbat aukera aztertu ziren, Lurraldebusen autobus mota bakoitzari zegokionez, eta aukera horiek dokumentu batean jaso dira. Aukera horiek erreferentzia teknikoa izan behar dute, Lurraldebusen autobus flotak berritzeko hurrengo prozesuak zertzen direnean kasuan kasuko operadoreari eskatzeko.
	Bidaiarien Erregelamenduan bizikletak garraiatzeko aukera jasotzea (Erregelamendua onartzea)	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Ekintza gauzatua.
	Bizikletak garraiatzeko aukera jasotzea hiriarteko autobus lineen emakidetak baldintza-agirietan (lehen pausoak egitea, emakidak lizitzatzeko baldintza-agirietan bizikleten garraioa jasotzeko irizpideak prestatzera begira)	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Ekintza gauzatua. Ekintza honi erantzuna ematearren, 2015eko irailaren 10ean bilera bat egin zen Mugikortasuneko eta Garraioko Zerbitzuaren ordezkarien eta Irizar enpresaren ordezkarien artean. Horretan bizikletak garraiatzeko hainbat aukera



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			<p>aztertu ziren, Lurraldebusen autobus mota ba-koitzari zegokionez, eta aukera horiek doku-mentu batean jaso dira.</p> <p>Aukera horiek erreferentzia teknikoa izan behar dute, Lurraldebusen autobus flotak berritzeko hurrengo prozesuak zertzen direnean kasuan kasuko operadoreari eskatzeko.</p>
--	--	--	--

2.2. Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa

5. Bizikleta turismorako eta naturara iristeko aukera bihurtzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
5.1. Nazioarteko bizi-kleta sareak bultzatze-ko programa	EuroVelo sareari eta mugaz gaindiko beste ekimen batzuei jarraipena eta laguntza (Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua egiten ari den EuroVeloren jarraipenerako jarduerak jarraitzea, Conseil Départemental des Pyrénées Atlantiques-ekiko lan komunak bezalaxe).	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	<p>Ekintza gauzatua.</p> <p>EuroVelo proiektua espainiar estatuan izaten ari den gauzatzearen eboluzioaren jarraipena egiteaz gain, GFAk, beste administrazio publiko batzuekin batera, proiektu bat aurkeztu du (EDERBIDEA) Interreg V A Espainia / Frantzia / Andorra (POCTEFA) 2014-2020 Programako deialdira. Proiektu horrek hainbat ekintza jasotzen ditu, Baiona, Donostia eta Iruñea arteko bizikleta bidezko loturak osatzeko, bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko, eta esparru honetan zabalkundea eta ezagutza-trukea bul-tzatze bidean.</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

5.2. Bizikleta jasotzen duten turismoko produktuak bultzatzeko programa	Laguntza informatiboa eta, hala dago-kionean, ekonomikoa ere bai, bizikletaren aldeko turismoko produktuei (turismo informazioa ematen duten erakundeek eskaintzen duten informazioaren lehen analisi eta jarraipenak egitea)	3.000 €	Gauzatu gabe.
5.6. Foru aterpetxeak bizikletazko turismora egokitzeko programa	Gipuzkoan dauden foru aterpetxeen eskaintzaren eta beharren analiza (analisi eta proposamen dokumentu bat prestatzea, bizikletaz zirkulatzen duten pertsonentzat erakargarriak izan daitezkeen aterpetxeetako instalazio eta zerbitzuak hobetzera begira)	3.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 4.053,5 € Aurreikusita dago prestatutako analisi eta proposamen dokumentua 2016ko lehen hiruhilekoan zehar aurkeztea Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiari.

6. Bizikleta eguneroko jarduera fisikoan eta osasunean txertatzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
6.3. Bizikleta eta mugikortasun iraunkorreko programa eskolako kirol jardueretan	Haurren entrenamendu eta lehiaketetara automobil bidezko bidaiak murrizteko ekimenei laguntzea (Oarsoaldean abian jarritako ekimenen jarraipena bermatzea. Ekimenari buruzko laneko jardunaldi batzuk egitea. Bizikletaren erabilera sustatzeko eta bultzatzeko materialak banatzea)	7.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 2.343,0 € Eskualde ekimen horri laguntza eman zaio, eta bizikletaren erabilera sustatzeko eta bultzatzeko materialak banatu dira. Aurreikusitako laneko jardunaldiak ez dira egin.
6.5. Kiroleko txirrindularitzatik eguneroko txirrindularitzara igarotzeko programa	Informazioa eta beste pizgarri-mekanismo batzuk prestatzea, bizikletaren kirol praktikatik eguneroko jarduerara igarotzeko (pizgarri-formula eraginkorrak identifikatzea eta klubaren ar-	6.000 €	Ekintza gauzatua, Gazteriako eta Kiroletako Zuzendaritza Nagusiarekiko eta Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoarekiko elkarlanean. Aurrekontu gauzatua: 10.406,0 €



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	tean banatzeko materialak prestatzea).		Aurreikusita dago prestatutako analisi eta proposamen dokumentua 2016ko lehen hiruhilekoan zehar aurkeztea Gazteriako eta Kiroletako Zuzendaritza Nagusiari.
--	--	--	--

7. Bizikleta eskolaumeen prestakuntzako elementutzat jasotzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
7.1 Bizikletaren erabilerako trebetasunetan trebatzeko programa	Bizikletaren erabilerako trebetasunetan trebatzeko irakasleak prestatzea.	30.000 €	<p>Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 23.142,4 €</p> <p>Aurten itxi da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) irakasleei zuzendutako bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko 2014-2015eko prestakuntza programa.</p> <p>Horretan 25 irakaslek hartu zuten parte, eta emaitza positiboak atera ziren egindako ebaluazioan.</p> <p>2015-2016 ikasterterako egindako prestakuntza-ikastaroetarako deialdiak eskaera kopuru txikia jaso zuen, txikiegia eskaintza aurreikusia gauzatu ahal izateko.</p> <p>Jasotako eskaera txikia ikusirik, komenigarri iritzi zitzaion eskaintza birmoldatzeari eta bizikletazko mugikortasunari buruzko aholkularitza tekniko zerbitzu bat definitzeko diagnostikoa egiteari,</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

			<p>DBHko zentroi zuzendurik, beren ikasleen artean hezkuntzaren eta bizikletaren erabileraren sustapenaren esparruan egiten duten lana sendotzearen.</p> <p>Diagnostikoa eginda dago jada, eta analisi baten gai izango da, bizikletazko mugikortasunari buruzko aholkularitza tekniko zerbitzu hori martxan jar daitekeen zehaztearen.</p>
7.2. Eskola Bide eta haurren mugikortasuneko programa	Ikastetxera joateko unean haurren autonomia sendotzeko ekimenak bultzatzea, batez ere oinezko eta bizikletazko desplazamenduei dagokienez (Gipuzkoako udalerrietan Bizikletaren Erabilera Sustatu eta Zabaltzeko Programaren laguntza-deialdiaren barnean diru laguntza jaso dezakeen kontzeptua)	9.3 programa ikusi	Gauzatu gabe.
7.3. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara bizikletaz iristeko programa	Ikastetxera joateko unean haurren autonomia sendotzeko ekimenak bultzatzea, batez ere oinezko eta bizikletazko desplazamenduei dagokienez (ikastetxeen eta toki erakundeen beharrak ezagutzeko lehen pausoak egitea)	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Gauzatu gabe.
7.5. Gazteen aisialdiaren esparruan mugikortasun iraunkorren eta bizikleta bidezkoaren inguruko sentsibilizazio programa	Elkarteetako eta gazte sustapeneko toki zerbitzuetako hezitzaile taldeak prestatzea: gazte sustapeneko programetan mugikortasun iraunkorra eta bizikleta bidezkoa kontuan hartu eta sartzeko gomendio gida bat prestatzea, inprimatzea eta zabaltzea (aurkezpen eta gogoeta saioak).	15.000 €	<p>Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 16.440,0 €</p> <p>Gidaren aurkezpen eta zabalkundea 2016ko lehen hiruhilekorako aurreikusia.</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

8. Bizikletaren aukera jasotzea lan-jarduerako zentroetarako hurbiltzeko aukeren artean.

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
8.1. Lantokira oinez eta bizikletaz iristea sustatzeko ekimen programa	Debagoieneko esperientzia pilotuan lortutako emaitzen analisisa	60.000 €	Gauzatu gabe.
8.2. Foru Aldundiaren lantokietara oinez eta bizikletaz iristea sustatzeko ekimen programa	Gipuzkoako Foru Aldundiaren mugikortasun iraunkorreko plana prestatzea: beharrei eta bizikletetarako aparkalekuak kokatzeko aukerei buruzko lehen analisiak egitea	15.000 € (kopuru horri erantsi beharko litzaizkioke Foru Administrazio-ko eta Funtzio Publiko-ko eta Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako departamentuen ekarpenak)	Gauzatu gabe.

9. Bizikletaren eta mugikortasunaren gaineko pertzepzio soziala aldatzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
9.1. Helduen bizikleta bidezko zirkulazioko trebetasunak areagotzeko programa	Eguneroko txirrindularitzaren praktikan sartzea zirkulazioan esperientziarik ez duten pertsonak: udalek eta dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeek helduentzat antolatutako ikastaroetarako laguntzak sartzea, diruz laguntzeko kontzeptu gisa, Gipuzkoako udalerrietan Bizikletaren Erabilera Sustatu	9.3 eta 9.4 programak ikusi	Ekintza gauzatua.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	eta Zabaltzeko Programaren laguntza deialdian eta bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko jarduerak garatzen dituzten elkarreentzako laguntza deialdian.		
9.2. Bizikleta kulturako elementutzat zabaltzeko programa	Bizikleta bultzatzea Foru Aldundia tar-tean sartzen duten kultur jardueretan, eta eginkizun horretan bertan laguntzea toki administrazioei:		
	1. Horrelako jarduerak sartzea, diruz laguntzeko kontzeptu gisa, Gipuzkoako udalerrietan Bizikletaren Erabilera Sustatu eta Zabaltzeko Programaren laguntza deialdiaren barnean (9.3 programa ikusi).	9.3 programa ikusi	Ekintza gauzatua.
	2. Bizikleta Donostia-San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburutzako ibilgailu ofizial deklaratzeko bultzatzea.	Ez da aurreikusten gastu espezifikorik eragitea.	Ekintza gauzatua. Hainbat hartu-eman izan dira Donostiako Udalarekin, ekimen honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza eskaini eta laguntzako hainbat ekintza aztertzeko.
	3. Bizikleta eta oinezko mugikortasunari buruzko glosario tekniko bat prestatzea, euskaraz eta gaztelaniaz.	Ez da aurreikusten gastu espezifikorik eragitea.	Gauzatu gabe.
	4. eu-Wikipedian bizikletazko mugikortasunari buruz dauden artikulak zabal-	Ez da aurreikusten gastu espezifikorik eragitea.	Gauzatu gabe.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

	tzeko eta hobetzeko aukera aztertzea		
9.3. Bizikleta sustatzeko programa	Ekimenak garatzea sustapenaren esparru zabalean:		
	1. Gipuzkoako udalerrietan Bizikletaren Erabilera Sustatu eta Zabaltzeko Programako laguntza deialdia	25.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 8.744,70 € Dirulaguntza jaso duten 5 udal. Aurreikusitako aurrekontuaren % 35 esleituta.
	2. gipuzkoabizikletaz.net webgunea gaurkotzea eta dinamizatzea	6.400 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 12.666,70 €
	3. "Bizikletaz" aldizkariaren argitalpena	20.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 17.160,0 € 2015ean zehar aurreikusitako 3 zenbakiak argitaratu dira.
9.4. Erakunde sozialek bizikleta sustatzeko dituzten ekimenterako pizgarri programa	Bizikleta sustatzen duten sare sozialei laguntza: bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko jarduerak garatzen dituzten entitateentzako laguntza deialdia.	15.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 9.915,22 € Diruz lagundutako 3 entitate. Aurreikusitako aurrekontuaren % 66 esleituta.

10. Bizikletari laguntzeko plangintza eta arau esparru bat sortzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
-----------	----------------------	------------------------	----------------



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

10.2. Bizikletarekin lotutako beste araudi eta gomendio batzuk garatzeko eta hobetzeko programa	Trafiko, espazio publiko eta mugikortasunari buruzko araudia ebaluatzea eta hori aldatzeko proposamena prestatzea, trafikoa moteltzeko irizpideak eta oinezkoen eta txirrindularien ikuspegiak txertatzearen: ordenantza eredu bat prestatzea.	4.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 6.776,0 € Ordenantza hori 2016ko lehen hiruhilekoan zehar aurkeztea eta zabaltzea aurreikusten da.
---	--	---------	---

11. Bizikletaren politika kudeatzeko tresnak sendotzea edo sortzea

Programak	Ekintza aurreikusiak	Aurrekontu aurreikusia	Gauzatze maila
11.1. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua dinamizatzeko programa	Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluari bultzada, duen ordezkari zabalduz eta bitarteko eta koordinazio eginkizun gehiago emanez: Bizikletaren Kontseilua funtzionamenduari eta perspektibei buruzko diagnostikoa egitea	10.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 9.075,00 € Egindako diagnostikoan oinarriturik, GFAk Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua berregituratzeko eta indartzeko proposamen bat egingo du hurrengo saio arruntean.
11.2. Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia	Behatokiaren eginkizunak zabaltzea eta definitzea, webgunearen eta beste		



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

dinamizatzeko programa	pro-	tresna batzuen bidez partaidetza publikora zabaltzea barne:		
		1. Herritarren ekarpenak jasotzeko urteko memoria egitea	Ez du gastu espezifikorik eragiten.	Gauzatu gabe.
		2. Foru sareko erabiltzaileei inkesta	11.000 €	Ekintza gauzatua. Aurrekontu gauzatua: 11.833,80 €
		3. Herritarren partaidetzarako foroak prestatzea eta dinamizatzea webgunean	7.000 €	Gauzatu gabe.



3. BIZIKLETAREN ESTRATEGIA EBALUATZEKO ADIERAZLE SISTEMA

Adierazi moduan, Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiak ebaluaziorako adierazle sistema bat definitzen du, estrategian bertan ezarritako helburuetatik sortu eta ondoko lerrootan aztertuko dugun bat.

Horren aurretik, baina, Estrategiak aurreikusitako adierazle sortari dagozkion datuen eskuragarritasunean jarri behar dugu arreta.

Ondoko taulan egiazta dezakegun moduan, adierazleetatik heren bat baino gehiagoren kasuan ez da modurik izan informaziorik biltzeko:

	Kop.:	%
Informazioa bildu ahal izan den adierazleak	18	% 64
Informazioa biltzerik izan ez den adierazleak	10	% 36
Guztira	28	% 100

Horretarako arrazoiak bat baino gehiago dira:

	Kop.:	%
Ez da informaziora iristerik izan	6	% 60
Informazioa urte anitzeko aldizkakotasunez argitaratzen da	3	% 30
Ez dagokio	1	% 10
Guztira	10	% 100

Emaitza hauen argitan, badirudi ezen, hurrengo ebaluazioetara begira, alde batetik ahalegin handiagoa egin behar dela informazioa biltzeko unean eta, bestetik, adierazle sortatik kendu egin behar direla urteko aldizkakotasunez argitaratzen ez direnak.



3.1. Mugikortasun helburu orokorreari lotutako adierazleak

1. helburua <i>Bizikletak Gipuzkoako desplazamenduen banaketan duen pisua 2011ko % 2,4tik % 4-5eraino igotzea, oinez edo garraio kolektiboz egiten diren desplazamenduen kuota jaitsi gabe.</i>															
Jarraipen adierazleak	Emaitzak														
1.1. Bizikletazko desplazamenduen portzentajea guztiarekiko.	<p>Ez dago datu berririk Eusko Jaurlaritzak prestatutako “Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren azterketa 2011” hartatik; hark % 2,4ko portzentajea ematen zuen.</p> <p>Lau urtean behingo azterketak dira, eta hurrengoa 2016an argitaratzea aurreikusten da.</p>														
1.2. Lehenago garraio bide bakoitzean egiten ziren desplazamenduetatik orain bizikletaz egiten direnen portzentajea.	<p>“Gipuzkoan bizikleta garraio bide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa 2014” argitaratu zenez geroztik ez dago datu berririk; hark emandako emaitzak honakoak dira:</p> <table><tbody><tr><td>Oinez</td><td>% 48</td></tr><tr><td>Motorrez</td><td>% 7</td></tr><tr><td>Garraio publikoz</td><td>% 14</td></tr><tr><td>Autoz</td><td>% 22</td></tr><tr><td>Beti bizikleta erabili dut</td><td>% 6</td></tr><tr><td>Ed/Ez</td><td>% 3</td></tr><tr><td>GUZTIRA</td><td>% 100</td></tr></tbody></table>	Oinez	% 48	Motorrez	% 7	Garraio publikoz	% 14	Autoz	% 22	Beti bizikleta erabili dut	% 6	Ed/Ez	% 3	GUZTIRA	% 100
Oinez	% 48														
Motorrez	% 7														
Garraio publikoz	% 14														
Autoz	% 22														
Beti bizikleta erabili dut	% 6														
Ed/Ez	% 3														
GUZTIRA	% 100														



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. helburua <i>Bizikleta erabiltzen duten pertsonen profil orekatuagoa jasotzea, gaur egun baino emakume eta gazte eta adingabe proportzio handiago batez.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
2.1. Bizikletazko desplazamenduak sexuaren eta adinaren arabera banatuta.	<i>"Gipuzkoan bizikleta garraio bide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa 2014"</i> argitaratu zenez geroztik ez dago datu berririk. Ikerlan hori 2018rako gaurkotzea aurreikusten da, Estrategiaren berrikuspenaren paraleloan.

3. helburua <i>Herrien arteko desplazamendu aktiboak (oinezkoak eta bizikletazkoak) areagotzea.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
3.1 Erabiltzaile kopurua Oinarrizko Foru Sarean jarraipena egiten den tarteetan. Urtean eta laurtekoan izandako aldaketa	2014 eta 2015eko datuak ez dira erabilgarri egongo 2016 arte.
3.2 Txirrindulari kopuru eta portzentajea Oinarrizko Foru Sarean jarraipena egiten den tarteetan. Urtean eta laurtekoan izandako aldaketa.	2014 eta 2015eko datuak ez dira erabilgarri egongo 2016 arte.

Ezin da inolako baloraziorik egin mugikortasun esparru orokorrean bilatutako 3 helburuetako bat berari buruz. Izan ere, eza-ritako adierazleei buruzko informazioa edo urte anitzeko aldizkakotasunez argitaratzen da edo ezinezkoa izan da hura eskuratzea.

3.2. Azpiegitura helburuei lotutako adierazleak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

1. helburua																																				
<i>Bizikletarako eta trafikoa moteltzeko hiri azpiegiturak osatzea Gipuzkoako udalerrietatik % 50ean.</i>																																				
Jarraipen adierazleak	Emaitzak																																			
1.1 Bizikletarako hiri azpiegiturak egin dituzten edota beren eskumeneko bide-sarean trafikoa moteltzeko neurriak ezarri dituzten Gipuzkoako udalerrien portzentajea.	53 udalerrri (% 60,2).																																			
1.2 Oinarrizko Udal Sarean egindako bizikletazko eta oinezko bideen luzera eta portzentajea, ibilbideka xehakaturata.	<table border="1"><thead><tr><th>IBILBIDEA</th><th>Luzera (km)</th><th>Gauzatze %</th></tr></thead><tbody><tr><td>1. ibilbidea: Donostia - Irun</td><td>27,544</td><td>% 67,3</td></tr><tr><td>2. ibilbidea: Donostia - Mutriku</td><td>14,451</td><td>% 50,8</td></tr><tr><td>3. ibilbidea: Donostia - Beasain</td><td>22,541</td><td>% 63,9</td></tr><tr><td>4. ibilbidea: Debarroa</td><td>8,802</td><td>% 45,5</td></tr><tr><td>5. ibilbidea: Urola bailara</td><td>6,917</td><td>% 65,5</td></tr><tr><td>6. ibilbidea: Bergara - Beasain</td><td>2,437</td><td>% 40,1</td></tr><tr><td>7. ibilbidea: Bidasoa bailara</td><td>3,301</td><td>% 75,7</td></tr><tr><td>8. ibilbidea: Leitzaran bailara</td><td>2,933</td><td>% 100,0</td></tr><tr><td>9. ibilbidea: Ego bailara</td><td>0,000</td><td>% 0,0</td></tr><tr><td>Guztira</td><td>88,926</td><td>% 58,0</td></tr></tbody></table>			IBILBIDEA	Luzera (km)	Gauzatze %	1. ibilbidea: Donostia - Irun	27,544	% 67,3	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	14,451	% 50,8	3. ibilbidea: Donostia - Beasain	22,541	% 63,9	4. ibilbidea: Debarroa	8,802	% 45,5	5. ibilbidea: Urola bailara	6,917	% 65,5	6. ibilbidea: Bergara - Beasain	2,437	% 40,1	7. ibilbidea: Bidasoa bailara	3,301	% 75,7	8. ibilbidea: Leitzaran bailara	2,933	% 100,0	9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	% 0,0	Guztira	88,926	% 58,0
IBILBIDEA	Luzera (km)	Gauzatze %																																		
1. ibilbidea: Donostia - Irun	27,544	% 67,3																																		
2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	14,451	% 50,8																																		
3. ibilbidea: Donostia - Beasain	22,541	% 63,9																																		
4. ibilbidea: Debarroa	8,802	% 45,5																																		
5. ibilbidea: Urola bailara	6,917	% 65,5																																		
6. ibilbidea: Bergara - Beasain	2,437	% 40,1																																		
7. ibilbidea: Bidasoa bailara	3,301	% 75,7																																		
8. ibilbidea: Leitzaran bailara	2,933	% 100,0																																		
9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	% 0,0																																		
Guztira	88,926	% 58,0																																		
Balorazioa 😊																																				
Bizikletaren Estrategiak lortu nahi duen helburua bete da jada, zeren eta udalerrietatik % 60k bizikletarako hiri azpiegiturak egin baititu eta, bestetik, oinarrizko udal sareen gauzatze maila, LAPek aurreikusiarekiko, % 58koa baita dagoeneko.																																				

2. helburua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

<i>Bizikleta Bideen Foru Sarea aurreikusitako luzera osoaren % 80raino osatzea, egungo sarea bikoiztuz horrela.</i>			
Jarraipen adierazleak	Emaitzak		
2.1 Oinarrizko Sarean egindako bizikletazko eta oinezko bideen luzera, ibilbideka xehakaturata.	IBILBIDEA	Luzera (km)	
	1. ibilbidea: Donostia - Irun	27,749	
	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	20,474	
	3. ibilbidea: Donostia - Beasain	48,224	
	4. ibilbidea: Debarroa	34,182	
	5. ibilbidea: Urola bailara	33,900	
	6. ibilbidea: Bergara - Beasain	5,416	
	7. ibilbidea: Bidasoa bailara	9,478	
	8. ibilbidea: Leitzaran bailara	22,318	
	9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	
Guztira	207,342		
2.2 Oinarrizko Foru Sarean egindako bizikletazko eta oinezko bideen luzera eta portzentajea, ibilbideka xehakaturata.	IBILBIDEA	Luzera (km)	Gauzatze %
	1. ibilbidea: Donostia - Irun	0,206	% 1,6
	2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	6,023	% 10,8
	3. ibilbidea: Donostia - Beasain	31,284	% 46,3
	4. ibilbidea: Debarroa	25,380	% 41,1
	5. ibilbidea: Urola bailara	26,983	% 70,3
	6. ibilbidea: Bergara - Beasain	2,978	% 11,3
	7. ibilbidea: Bidasoa bailara	6,178	% 100,0
	8. ibilbidea: Leitzaran bailara	19,385	% 100,0
	9. ibilbidea: Ego bailara	0,000	% 0,0
Guztira	118,416	% 40,9	
2.3 Egungo Oinarrizko Foru Sarearen luzerak laurteko bakoitzerako planifikaturako Sarearekiko izandako desbideratzea.	Ez dagokio.		



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Balorazioa 🙄

Gaur egun Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareak % 46,8ko gauzatze maila du, LAPen aurreikusitako guztirako luzerarekiko. Bizikleta Bideen Foru Sarearen kasuan, maila hori % 41ean dago ia-ia; beraz, inbertsio ahalegina handitu beharko litzateke, Estrategiak 2022rako aurreikusten duen luzeraren % 80ra iristearren.



3. helburua

Egun dauden bizikleta bideak mantentzea eta eraberritzea, egungo funtzionalitatea gorde edo hobetzea.

Jarraipen adierazleak

Emaitzak

3.1 Artapen eta jarraipen protokoloa daukaten Oinarrizko Foru Sareko bizikleta eta oinezko bideen luzera, guztira eta ibilbideka xehakatuak.

IBILBIDEA	Luzera (km)
1. ibilbidea: Donostia - Irun	0,0 ²
2. ibilbidea: Donostia - Mutriku	3,752
3. ibilbidea: Donostia - Beasain	29,428
4. ibilbidea: Debarroa	21,189
5. ibilbidea: Urola bailara	25,307
6. ibilbidea: Bergara - Beasain	2,985
7. ibilbidea: Bidasoa bailara	6,177
8. ibilbidea: Leitzaran bailara	0,0 ³
9. ibilbidea: Ego bailara	0,0 ⁴
GUZTIRA	88,838

Balorazioa 😊

Gaur egun Oinarrizko Foru Sarean eginda dauden 118 km-etatik, 89 km-tan GFAk artapen eta jarraipen lanak egiten ditu; portzentajeetan adierazita, hori % 89,7 da (Leitzaran bailara kanpo utzita), kopuru handi samarra inolaz ere.

² Gaur egun ibilbide horretan ez dago zerbitzuan den foru titularitateko batere tarterik.

³ 22,3 km luzeko ibilbide hori foru titularitatekoa da, udal titularitatekoa (Andoingo Udala) den 2,9 km-ko tarte bat izan ezik. Trenbide-plataforma zahar bat da, oinezkoen eta txirrindularien gain baso ustiapenari lotutako ibilgailu motordunek ere erabiltzen dutena bera. Horren kudeaketa Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuari dagokio. Ez dugu hor egiten diren mantentze-lanei buruzko informaziorik.

⁴ Gaur egun ibilbide horretan ez dago zerbitzua ematen duen batere tarterik.



3.3. Zerbitzuekin zerikusia duten helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Bizikleta sendo sartzea garraio kolektiboaren katean (bai ibilgailuei dagokienez bai geltoki, sarbide, ordaintzeko modu eta tarifei dagokienez).</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
1.1 Garraio kolektiboan ibilbidearen parte bat egin aurretik edo ondoren bizikletaz egiteko tarte bat duen desplazamendu kopuru eta portzentajea.	Adierazle honen balorazioak ez du gaur egun zenbakizko erreferentziarik. Etorkizunean, datu hau Eusko Jaurlaritzak egiten dituen mugikortasun inkestetan sartu beharko litzateke, desplazamendu kate mota hori zehaztuta.
Balorazioa ? Gaur egun horrelako informaziorik ez dagoenez, ezinezkoa da helburu honen betetze mailari buruzko inolako baloraziorik egitea.	

2. helburua <i>Sareak sortzea, Gipuzkoako esparruan eskaini ahal izateko bai alokairu zerbitzuak eta bizikleta erregistroak, bai lapurreta kontrakoko sistemak, konponketa zerbitzuak, bizikletarekin lotutako informazioa trukatzekoak eta abar.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
2.1 Sare horiek izatea (Bai / Ez).	Ez
Balorazioa ☹ Kudeaketa Planak ez zuen helburu honi lotutako inolako ekintzarik programatu 2015erako, eta helburu horretarako inolako ekimen paralelorik ere ez da sortu.	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3.4. Mugikortasuna planifikatzeko eta kudeatzeko helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Lantokietarako mugikortasun planak, Gipuzkoako jarduera esparruetatik % 25ean.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaizak
1.1 Lantokietarako mugikortasun planen kopurua eta mota horretako planak dauzkaten eremu eta jarduera poligonoen kopurua.	Datu ezezaguna.
Balorazioa ? Gaur egun ez dago horrelako informaziorik. Beraz, ezin da helburu honi buruzko inolako baloraziorik egin, nahiz pentsa daitekeen egungo egoera lortu nahi den kopurutik nabarmen urrun dagoela.	

2. helburua <i>Eskola Bide programak, Gipuzkoako ikastetxeetatik % 50era zabalduak.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaizak
2.1 Eskola Bide programak egin dituen lehen eta bigarren hezkuntzako eta hezkuntza unibertsitario eta espezializatuko zentro kopurua.	Datu ezezaguna.
Balorazioa ? Gaur egun horrelako informaziorik ez dagoenez, ezinezkoa da helburu honi buruzko inolako baloraziorik egitea.	



3.5. Helburu politikoekin lotutako adierazleak

1. helburua <i>Bizikletaren Kontseilua administrazioen ekimenak koordinatzeko eta bizikletarekin lotutako informazioa trukatzeko espazio bihurtzea.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
1.1 Bai / Ez (Adierazle honen zehaztapenak Kontseiluaren jardueren deskripzio eta ebaluazio bat izan behar du sostengu)	Bai, partzialki
Balorazioa 😊 Kontseiluko kideen pertzepzioa aztertzeraz zuzendutako prozesu bat egin da; horren emaitzek lagundu egingo dute besteak beste helburu hori lortzera zuzendutako neurriak hartzen. Dena den, 2015eko 4. lauhilekoan egiteko aurreikusitako saio arrunta, neurri horiek onartzekoa, 2016ko urtarrilaren 12ra atzeratu da.	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

2. helburua	
<i>Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia garatzea, bizikletazko mugikortasuna ezagutzeko oinarrizko tresnatzat.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
2.1 Bai / Ez (Adierazle honen zehaztapenak Behatokiaren jardueren deskripzio eta ebaluazio bat izan behar du sostengu)	Bai.
Balorazioa 😊 <p>2015eko urtean zehar Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak jarraitu egin du Bizikleta Bideen Foru Sarearen eta bizikletaren erabileraren jarraipen lanak egiten; horien helburua haren kudeaketa eta mantentzea hobetzea da.</p> <p>Zehazki, Bizikleta Bideen Foru Sareko bizikleta eta oinezkoetarako kontagailu automatikoen sarea mantentzen da; sare horrek egiten diren desplazamenduei buruzko datu jarraituak ematen ditu. Datu horiek ustiatu eta 2016ko otsailean azalduko dira jendaurrean.</p> <p>Datu horiek urteko inkesta batekin osatzen dira. Inkesta hori erabiltzaile lagin bati egiten zaio, horien profil soziologikoa, desplazamendua eragiten duten arrazoiak, gogobetetasun mailak, iradokizunak eta abar ezagutzeko. Lan horren emaitzak jasotzen dituen txosten bat prestatu da.</p> <p>Bestetik, bizikleta bideen foru sare osoko ikuskatze eta ebaluazio lanak egin dira, besteak beste horren mantentze egoera, seinaleztapen eta argiztapena, bidegurutzeen segurtasuna, irisgarritasuna eta tarteen konektagarritasuna baloratzeko, eta antzemandako gabeziei erantzuteko irtenbideak proposatzeko.</p> <p>Konklusioei buruzko txostena 2016ko lehen hiruhilekoan zehar aurkeztuko da.</p>	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3. helburua <i>Gipuzkoako Foru Aldundian dagokien departamentu guztiak sartzea bizikletaren politiketan.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
3.1 Bai / Ez (Adierazle honen zehaztapenak departamentuen eta horien zuzendaritza nagusien jardueren ebaluazioa izan behar du sostengu).	Bai, partzialki.
Balorazioa 😊 2015ean zehar, foru departamentuetatik heren batek parte hartu du Bizikletaren Estrategiako ekintzak gauzatzen (Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua; Bide Azpiegituretako Departamentua; eta Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako Departamentua). Estrategia zabaldu denetik igarotako denbora laburrak, eskura diren giza baliabide mugatuek eta legegintzaldi aldaketak zaildu egin dute oraingoz helburua lortzea; seguruenik hainbat urte beharko ditu, behar bezala betetzearren.	



3.6. Zerga eta aurrekontu helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua	
<i>Garraio azpiegituretako inbertsioetarako foru aurrekontuetatik % 15 bideratzea oinezko eta bizikletazko mugikortasunera.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaizak
1.1 Oinarrizko Foru Sarea gauzatzeko aurrekontu gauzatua eta bideratua ⁵ . Planifikatutako aurrekontuarekiko desbideratzea.	<ul style="list-style-type: none">Aurrekontu planifikatua:Desbideratzea: - % 35,3
1.2 Oinarrizko Foru Sareko mantentze-lanetarako aurrekontu gauzatua eta bideratua. Planifikatutako aurrekontuarekiko desbideratzea.	<ul style="list-style-type: none">Aurrekontu planifikatua:Desbideratzea: - % 79,32
1.3 Oinarrizko Foru Sarea eraikitza eta mantentzera zuzendutako aurrekontu gauzatu eta bideratuak hartzen duen portzentajea ⁶ , garraio azpiegituretako guztirako inbertsio aurrekontuarekiko.	<ul style="list-style-type: none">Aurrekontu gauzatua:Portzentajea: % 5,03
Balorazioa 😞	
Oinarrizko Foru Sarea eraikitze aurrekontu planifikatuaren gauzatze maila apenas iristen den % 65era.	
Bestetik, Oinarrizko Foru Sareko mantentze-lanetara hasieran bideratutako kantitatea nabarmen murriztu da.	
Azkenean, Oinarrizko Foru Sarea eraikitze eta mantentzeko aurrekontu gauzatuak % 5,3ko portzentajea egiten du, garraio azpiegituretako guztirako inbertsio aurrekontuarekiko; kopuru hori Estrategiak 2022ko urterako aurreikusten duen % 15eko helburutik nabarmen urrun geratu da.	
2. helburua	
<i>Mugikortasun aktiborako zerga pizgarriak ezartzea.</i>	

⁵ Desjabetzeak barne.

⁶ Desjabetzeak barne.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Jarraipen adierazleak	Emaitzak
2.1 Pizgarri horiek izatea (BAI/EZ) eta, badauden kasuetan, horien kopuruaren zenbatespena. (Kasu honetan pizgarrien deskripzio bat behar da, zergabilketa testuinguruarenarekin batera).	Ez.
Balorazioa 🚫 Estrategia zabaldu denetik igarotako denbora laburrak eta legegintzaldi aldaketak ez dute aukerarik eman helburu hau lortzeko bidean inolako jarduerarik gauzatzeko; seguruenik hainbat urte beharko ditu, behar bezala betetzearren.	



3.7. Arauketa helburuekin lotutako adierazleak

1. helburua	
<i>Bere zehaztapenetan bizikleta sartzen duen hirigintza eta lurralde araudi bat edukitzea.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
1.1 Bai / Ez (Dagokion organoak onartutako hirigintza edo lurralde plan berri bakoitzak bizikletazko mugikortasunari lotutako zehaztapenak jaso beharko ditu).	Bai
Balorazioa 😊	
2013ko ekainetik 2015eko abendu arte, hiri antolaketako 9 plan orokorrek jaso dute behin betiko onespina Gipuzkoan ⁷ , eta horiek guztiek jaso dituzte Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPEk ezartzen dituen bizikletazko mugikortasunari lotutako zehaztapenak.	

⁷ Abaltzisketa, Azpeitia, Belauntza, Bidania-Goiatz, Hernialde, Irun, Oiartzun, Olaberria eta Urnieta.



2. helburua <i>Bizikletaren beharrak jasotzea onartzen diren udal hirigintza plan berri guztietako zehaztapenetan.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaitzak
2.1 Bai / Ez	Bai
2.2 Bere hirigintzako antolamenduan bizikletarekin lotutako zehaztapenak jasotzen dituzten udal hirigintza planen kopurua.	8 ⁸
2.3 Bizikletarekin lotutako zehaztapenak jasotzen dituzten udal hirigintza planen portzentajea, udal hirigintza plan guztiekiko.	% 89
Balorazioa 😊 <p>Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia prestatzeko egindako udal galdetegiak adierazten duenez, 88 udalerrietatik % 38,6k⁹ jasotzen ditu hiriko bizikleta azpiegiturak bere planteamenduan; kopuru hori % 45,5era iristen da, hiriarteko azpiegituren kasuan.</p> <p>Portzentajea are handiagoa da bere udal planeamendua 2013ko ekainean Bizikleta Bideen LAP onartuz geroztik onartu duten udalen kasuan. Izan ere, eta Belauntzaren salbuespenarekin, beste 8 udalerriek bizikletarekin lotutako zehaztapenak jaso dituzte beren hirigintzako plangintzan.</p>	

⁸ Abaltzisketa (Oinezko eta motor gabeko komunikazio sarea); Azpeitia (Ibilbide Berezien Sarea (bizikleta - oinezkoa, haraneko bizikleta bidea Lasatik Azpeitiko hiriguneraino, eta Enparandik Urrestillaraino); Belauntza (Ibarra - Belauntza adarra, Tolosaldeko Bizikleta Mugikortasun Planekoa); Irun (Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPEk definitutako 1. eta 7. ibilbideei dagozkien tarteak egiteko trazadurak jasotzen ditu); Oiartzun (LAPEk bizikleta sarerako egin proposamena jasotzen du, auzoko beste sare batzuekin osatuta); Olaberria (oinezko eta bizikletazko komunikazio sistema lurzoru urbanizaezin osoan); eta Urnieta (LAPEk bizikleta sarerako egin proposamena jasotzen du, auzoko beste sare batzuekin osatuta).

⁹ Guztira 73 udalerrik erantzun zioten galdetegiari; udalerrri horietan bizi da lurralde honetako biztanleriaren % 96.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

3. helburua <i>Mugikortasun edo trafiko ordenantzak bizikletara egokitzea erregulazio modalitate hori duten Gipuzkoako udalerrietatik % 75ean.</i>	
Jarraipen adierazleak	Emaizak
3.1 Bai / Ez	Bai, partzialki.
3.2 Bere mugikortasun ordenantzetan bizikletaren beharren perspektiba jasotzen duen Gipuzkoako udalerri kopurua.	Datu zehatza ezezaguna.
Balorazioa 😊 <p>Mugikortasuneko udal ordenantza daukan Gipuzkoako udalerri kopurua zehatz ezagutzen ez badugu ere, oso kopuru txikia dela uste dugu.</p> <p>Helburu honi dagokionez, ordenantza eredu bat prestatu da, hain zuzen udalerri bakoitzeko errealitatera egokitzea ahalbidetzearen. Ordenantza hori 2016ko lehen hiruhilekoan zehar aurkeztea eta zabaltzea aurreikusten da.</p>	



4. BALANTZEA

1. Ikuspegi global batetik, ikusten dugu ezen 2015eko Kudeaketa Planak egitea aurreikusten zuen 38 ekintzetatik guztira 25 egin direla, hau da, % 66.

Gauzatze maila hori azaltzen duten arrazoiak bilatzeko, batez ere kontuan hartu beharko dugu Mugikortasuneko eta Garraioko Zerbitzuak lan esparru honetara bideratzen dituen giza baliabideak ez zaizkiola behar bezala egokitzen Estrategia zabaltzeko neurriari; eta horri gehitu behar tartean izan den legegintzaldi aldaketa, zaildu egin baitu beste departamentu batzuei eragiten zieten jarduerak implementatzea.

2. Bestetik, 6.746.283 €ko guztirako aurrekontu aurreikusitik 5.389.623 euro gauzatu dira, hau da, haren % 80.

Aurrekontu gauzatuak 2015eko Kudeaketa Planak aurreikusiarekiko izandako jaitsiera nabarmen horrekin, 7,59 euroko gastua izan da biztanleko, eta kantitate hori oso urrun dago Bizikletaren Estrategiak urtero esparru horretara bideratzea proposatzen duen biztanleko eta urteko 10-12 euroko ratiotik¹⁰.

Ahalegin ekonomiko hori betetzeko abala dugu, gainera, *“Gipuzkoan bizikleta garraio bide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa”*¹¹ lanean adierazitako iritzia, horren arabera biztanleriaren gehiengo handi bat (% 79) oso ados (% 35) edo nahiko ados (% 44) baitago Gipuzkoan bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko baliabide publiko gehiago inbertitzeko aukerarekin; aldiz, horrekiko adostasun txikia edo adostasunik eza adierazten duen pertsona portzentajea % 20koa da.

¹⁰ Proposamen honek nazioarteko hainbat erreferentzia zeuzkan oinarri, Frantziaren kasua esaterako, horretan egiten zituzten inbertsio beharren zenbatespenak 10 euro/biztanle ingurukoak baitziren (Atout France: *“Spécial économie du vélo”*. Paris, 2009); Erresuma Batuko Parlamentuak, aldiz, kopuru handixeago bat kalkulatu zuen, beharrezkotzat, zehazki 12,5 euro biztanleko (All Party Parliamentary Cycling Group: *“Get Britain Cycling”*, 2013).

¹¹ SIADECO (2014): *“Gipuzkoan bizikleta garraio bide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa”*. Gipuzkoako Foru Aldundia.



3. Grafiko erantsian ikus daitekeen moduan (37. orrialdea ikusi), aurreikusitako bolumen ekonomikoen jaitsiera hori 7 ardatz estrategikotan gertatu da, nahiz jaitsieraren parte nagusia 2. ardatz estrategikoko inbertsioek (bizikleta bideen foru sareko tarte berriak eraikitzea eta horiek mantentzea) izan duten % 24ko jaitsieraren emaitza den.

Datu horrek argi erakusten du, berriro ere, ez dela betetzen ari Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAPek aurreikusitako programazio ekonomikoa Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sareko tarteak gauzatzeari eta mantentzeari dagokionez, lehen laurtekorako 60,4 milioi euroko kopurua jasotzen baitzuen.

Beraz, azpiegituren arloan Estrategia honen helburuak lortu ahal izateko, hau da, foru sarearen % 80 2022rako prest egoteko, ezinbestekoa da LAP aurkeztu zenez geroztik zabalduetako inbertsio joera aldatzea.

4. Estrategian aurreikusitako lan ildo guztiak zabaltzeko Kudeaketa Planak egindako aurreikuspena bete da, nahiz oraindik hastapeneko pausoetan egon hori, 8. ardatz estrategikoko (Bizikletaren aukera jasotzea lan-jarduerako zentroetara hurbiltzeko aukeren artean) jardueren kasuan izan ezik, horiek ez baitira gauzatu.
5. Bestetik, aipatzekoa da hiri inguruetan trafikoa moteltzeko eta txirrindulariak galtzadan sartzeko jardueretarako inbertsioek aurrekontu aurreikusiarekiko izan duten % 25eko igoera (625.814 euro izan dira, hasieran esleitutako kopurua 500.000 eurokoa bazen ere).
6. Aurrekontuaren banaketa azpiegitura eta zerbitzu arloetarako, edo sustapen, kudeaketa eta erregulazio arloetarako destinoaren arabera aztertzen badugu, ikusten dugu bai kantitate aurreikusiak bai kantitate gauzatuak aipatu lehen arloan bildu direla nagusiki.

	Aurrekontu aurreikusia	%	Aurrekontu gauzatua	%
Azpiegiturak eta zerbitzuak	6.508.883 €	% 96,5	5.257.067,5 €	% 97,5
Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa	237.400 €	% 3,5	132.556,3 €	% 2,5
Guztira	6.746.283 €	% 100,0	5.389.623,8 €	% 100,0



Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Gogora dezagun ezen, Bizikletaren Estrategiak jasotzen duenaren arabera, garapeneko lehen urteetan inbertsio ahaleginak gehiago jo behar duela azpiegitura eta zerbitzuetara, sustapen, kudeaketa eta erregulaziora baino. Hala ere, arlo bien arteko proportzioak orekatzen joan beharko du Estrategia garatzen eta sareak osatzen joan ahala, horixe baita inbertsio ahalegin handiena eskatzen duen elementuetako bat.

Horizonte idealean, lehen laurtekoaren amaieran azpiegiturek aurrekontuaren % 90 izan beharko lukete, eta % 10 sustapenera zuzendutako partidena izango litzateke. Bigarren laurtekoaren amaieran, kopuru horiek are orekatuago egon beharko lukete, % 80/20 inguruko banaketa batez.




Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

DISTRIBUCIÓN DEL PRESUPUESTO PREVISTO Y EJECUTADO POR EJES Plan de Gestión de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa 2015

■ Presupuesto previsto
■ Presupuesto ejecutado






Helburu proposatuak ebaluatzena begira Bizikletaren Estrategiak ezartzen dituen adierazleei erreparatu gero, ondoko taula sintetiko hau lortuko dugu, haien irakurketa global baterako argigarri:

Adierazleen laburpen taula			
1. Mugikortasunaren adierazleak	?	?	?
2. Azpiegituren adierazleak	😊	😊	😞
3. Zerbitzuen adierazleak	?	😞	
4. Mugikortasunaren plangintza eta kudeaketaren adierazleak	?	?	
5. Helburu politikoen adierazleak	😊	😐	😐
6. Fiskalitate eta aurrekontuen adierazleak	😞	😞	
7. Erregulazio adierazleak	😊	😊	😐

Beraz, Bizikletaren Estrategiak ezartzen duen 28 adierazleko sorta horretatik, emaitza orokor hauek ateratzen dira:

- Balorazio positiboa duten adierazleak: 5 (% 28)
- Tarteko balorazioa duten adierazleak: 3 (% 17)
- Balorazio positiboa duten adierazleak: 4 (% 22)
- Baloraziorik gabeko adierazleak: 6 (% 33)





Gipuzkoako Foru Aldundia

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

Gure arreta balorazio negatiboa jasotzen duten adierazleetan jarriz gero, ateratzen dugun konklusio nagusia dugu ezen azpiegitura, fiskalitate eta aurrekontuei buruzko adierazleak bat datozela, agerian jartzen dutelarik inbertsio ahalegina handitu egin behar dela, lehen jada adierazi moduan, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen % 80ra iristearren, horixe baita Estrategiak 2022rako aurreikusten duena.